

AURREIKUSITAKO PROIEKTUAK ETA OBREK
UKITUKO DITUZTEN ALDERDIAK

SUSTATZAILEA/PROIEKTUAREN IZENBURUA

UDALA: Zerkabarren kalea eraberritzea.

UDALA: Foru kalea eraberritzea, Independentzia kaletik Errege atera bitartean.

UDALA: Guatemala kalea eraberritzea.

ARABAKO LANKETA, SL: 12. BBPB "Abetxuko Bizitokia Hegomendebaldea".

EUSKO JAURLARITZA: Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailerako zuntz optikoko lineak.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko maiatzaren 31ean.- Alkatea, ALFONSO ALONSO ARANEGUI.

VITORIA-GASTEIZ

3.932

Iragarkia

2005eko maiatzaren 20ko dekretuan erabakitakoaren ildotik, behin-behineko langile izendapen hau egin du alkateak:

Santiago Abascal Conde jn.

Aholkularia

Eragin-data: 2005eko maiatzaren 20a

Hala ematen da argitara, 11/1999 Legea zela medio aldatutako apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 104. artikuluan xedatutako ondorioak izan ditzan.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko ekainaren 1.ean.- Alkate-Lehendakaria, ALFONSO ALONSO ARANEGUI.

VITORIA-GASTEIZ

INGURUMEN SAILA

3.933

Ediktua

Honen bitartez, San Prudentzio kaleko 26.ean dagoen World Music kafetegiaren titular den Río Carboco, SL elkarteari udal honen jarritako isuna jakinarazten zaio:

"Ondorengo dekretua eman du zinegotzi ordezkariak gaur:

World Music kafetegiaren titularra denez ixteko orduaren araudia hausteagatik Río Carboco, S.C elkartearen kontra 2004ko urriaren 31n bideratutako dossier zigtortzailea aztertu da.

AURREKARIAK

Lehena.- Dossierrean jasota dagoen udaltzainen txostenean esaten denez, San Prudentzio kaleko 26.ean dagoen World Music kafetegia irekita zegoen 2004ko urriaren 31n, 3:50ean; hortaz, ez zuen bete Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren abenduaren 16ko 296/1997 dekretuan establezimendu publikoetarako finkatutako ixteko ordua.

Bigarrena.- Hori zela eta, 2004ko azaroaren 25eko probidentzia zela medio, baimenaren titular den Río Carboco S.L.ren kontrako dossier zigtortzailea abiarazi zen.

Hirugarrena.- Entzunaldirako epea agortu delarik, dossier instruktoarek ebazpen-proposamena egin du, eta 1.800 euroko isuna proposatu.

OINARRI JURIDIKOAK

I.- Dosierraren instruktoarek egindako proposamenean azaltzen diren gertakariak oro eta lege-oinarriak guztiz frogatutaz jotzen dira, eta orobat jo beharko dira hona aldatutaz.

II.- Frogatutaz jotzen da jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituen 4/1995 Legearen 33 n) artikuluen kontrako arau-hauste larria egin dela (ikus bedi, halaber, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren abenduaren 16ko 296/1997 dekretua, establezimendu publikoei buruzkoa).

III.- Horren erantzule Río Carboco S.L. da, establezimenduko baimenaren titularra baita.

PREVISIÓN DE PROYECTOS Y ZONAS AFECTADAS
POR OBRAS EN VÍA PÚBLICA

PROMOTOR/TITULO DEL PROYECTO

AYUNTAMIENTO: Reforma de la calle Cercas Bajas.

AYUNTAMIENTO: Reforma de la calle Fueros, entre Independencia y Portal del Rey.

AYUNTAMIENTO: Reforma de la calle Guatemala.

ARABAKO LANKETA, SL: PERI número 12 " Abetxuko Residencial Suroeste".

GOBIERNO VASCO: Tendidos de Fibra Óptica para el Departamento de Interior del Gobierno Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 31 de mayo de 2005.- El Alcalde, ALFONSO ALONSO ARANEGUI.

VITORIA-GASTEIZ

3.932

Anuncio

De conformidad con lo acordado en Decreto del 20 de mayo de 2005, la Alcaldía ha efectuado el siguiente nombramiento de personal eventual:

Don Santiago Abascal Conde

Asesor

Fecha efectos: 20 de mayo de 2005

Lo que se hace público a efectos de lo dispuesto en el artículo 104 de la Ley 7/85 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local modificada por la Ley 11/1999.

En Vitoria-Gasteiz, a 01 de junio de 2005.- El Alcalde-Presidente, ALFONSO ALONSO ARANEGUI.

VITORIA-GASTEIZ

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE

3.933

Edicto

Por el que se notifica a Río Carboco, S.L., titular de la Cafetería World Music, sita en la calle San Prudencio, número 26, una sanción que contra el mismo se sigue en este Ayuntamiento:

"Por la Concejala-Delegada sido dictado en el día de hoy el siguiente Decreto:

Visto el expediente sancionador tramitado contra Río Carboco S.L. titular del establecimiento denominado cafetería World Music por infracción del horario de cierre, el día 31.10.2004.

ANTECEDENTES

Primero.- Según el informe de la Policía Local que obra en el expediente, el establecimiento denominado cafetería World Music, sito en calle San Prudencio 26, se encontraba abierto el día 31.10.2004, a las 3,50 horas, lo que infringe el horario de cierre establecido en el Decreto 296/1997 de 16 de diciembre, del Departamento de Interior del Gobierno Vasco para los establecimientos públicos.

Segundo.- Por tal motivo, mediante Providencia de fecha 25.11.2004, se incoó expediente sancionador contra Río Carboco S.L. actual titular de la licencia.

Tercero.- Finalizado el trámite de audiencia conferido, por el Instructor del expediente se formuló propuesta de Resolución, proponiendo una sanción de 1800 euros.

FUNDAMENTOS JURIDICOS

I.- Se aceptan íntegramente como probados los hechos contenidos en el relato fáctico de la Propuesta elevada por el Instructor del expediente, así como su fundamentación jurídica, que deberán tenerse aquí por reproducidos.

II.- Se considera probada la comisión de una infracción GRAVE del art 33 n) de la Ley 4/1995, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas, en relación con el Decreto 296/1997 de 16 de diciembre del Departamento de Interior del Gobierno Vasco para establecimientos públicos.

III.- Resulta responsable de la misma Río Carboco S.L., titular de la licencia del establecimiento.